



TRANSIZIO ENERGETIKOARI ETA KLIMA-ALDAKETARI BURUZKO 1/2024 LEGEARI BURUZKO UDALENTZAKO OHIKO GALDERAK

1. Zergatik behar du Euskadik trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren lege hori?

Atmosfera berotzen ari da, eta horrek ondorio larriak ditu gure ingurumenerako eta gure gizarteetarako. **Munduko tenperaturaren igoera industriaurreko garaiarekiko 1,5 °C-ra mugatzeko** eta klima-aldaketaren ondorio negatiboak murrizteko, Planetak azkar murriztu behar ditu atmosfera berotzen duten berotegi-efektuko gasen (BEG) emisioak, hemendik 2050era CO2ko emisio garbiak zero izan daitezen.

Datu zientifikoan, klima-aldaketaren gero eta nabarmenagoak eta larriagoak diren eragin negatiboen eta herritarrek jarduera ausartago baten alde egiten dituzten eskaeren arabera, **premiatzkoa da neurri gehigarriak hartzea**, bai arintzeari bai egokitzapenari dagokionez.

Europak anbizio handiko arau klimatikoak ezarri ditu eta ekonomia eraldatzen hasi da helburu klimatikoekin bat etortzeko. Euskadik, Europarekin ados, helburu hau ezarri du 1/2024 Lege honetan: 2050erako berotegi-efektuko gasen emisio garbiak zero izatea, eta neutraltasun klimatiko hori 2045. urtean lortzeko beharrezko ahaleginak egitea.

2. Zeintzuk dira legearen helburuak?

Hauek dira legeak ezarritako helburu nagusiak:

- Euskadin neutraltasun klimatikoa beranduenez 2050ean lortzea, 2045ean lortzeko beharrezko ahaleginak eginez;
- BEGen emisioak 2030ean, 2005ekoekin alderatuta, %45 murriztea;
- 2030. urtean, 2021. urtearekiko, gutxienez energiaren azken kontsumoaren %12 aurreztea;
- 2030erako, energia berriztagarriak azken kontsumo energetikoaren gutxienez %32a izatea;
- Lurraldearen klima-aldaketarekiko erresilientzia handitzea.



3. Lege hori energia-jasangarritasunari buruzko 4/2019 legearen betebeharren osagarria da. Nola bateratzen dira?

Energia-jasangarritasunari buruzko 4/2019 Legea honen osagarria da; beraz, haren betebeharrek indarrean jarraitzen dute eta bertan agertzen diren organoak lege-esparru berrira egokitzen dira. Hala, aurreko legean agertzen ziren jasangarritasun-batzordeak trantsizio energetikoko eta klima-aldaketako batzorde bihurtuko dira, eta jasangarritasun energetikoko planak, berriz, klima- eta energia-plan bihurtuko dira. Beraz, lege-testu biak osagarriak dira eta biek udalerrietarako ezarritako helburuak jarraitzen dituzte. Energiaren eta klima-aldaketaren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak jarraibide-gida bat egingo du, lege hau onartu eta gehienez urtebetera. Gida horretan, EAEko udalerriek beren klima- eta energia-planak egiteko erabil ditzaketen tresnak eta metodologiak adieraziko dira.

Horrez gain, 1/2024 Legeak Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legean sektore bakoitzerako ezarritako betebeharrak handitzeko aukera ematen du, onartuko diren plangintza-tresnen edo arau-tresnen bidez.

4. Zein gobernantza-organo ditu legeak? Zeinek dute eragin zuzena erakunde lokaletan?

Legeak energiaren eta klimaren gobernantza hobetzeko **elementu berriak** definitzen ditu. Trantsizio energetikorako eta klima-aldaketarako **batzorde zientifikoa** alde batera utzita, tokiko ekintzan eragin handien izango duten organoak **Trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren euskal bulegoa** eta Trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren **herritarren batzarra** izango dira. Horrez gain, Ingurumenerako aholku batzordea eta Politika lokalen euskal kontseilua bezalako batzordeen irismena ere zabaldu da.

Trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren euskal bulegoa euskal administrazio publikoen erreferentzia teknikoa izango da deskarbonizazioari, egokitzapenari eta klima-aldaketarekiko erresilientziari dagokienez. Hauek dira bulegoaren eginkizunak: legearen helburuen jarraipena egitea eta araudia betetzen dela kontrolatzea, gasen inbentarioa, trantsizio energetikoaren adierazleak, agertoki klimatikoak eguneratzea, kalteberatasuna ebaluatzea, informazio-, prestakuntza- eta komunikazio-bideak, dibulgazio-jarduerak, euskal behaketa sistema kudeatzea, eta Batzorde zientifikoa eta Herritarren batzarrari laguntzea. Eusko Jaurlaritzak Trantsizio energetikorako eta klima-aldaketarako euskal bulegoaren funtzionamenduaren araudia onartuko du, legea onetsi eta gehienez ere urtebeteko epean.



Gainera, herritarren parte-hartzea bultzatzeko, **Trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren herritarren batzarra** eratu da.

Trantsizio energetikoari eta klima-aldaketari buruzko euskal itun soziala onartzeko, Eusko Jaurlaritzak partaidetza-prozesu bat diseinatu eta bultzatuko du, **autonomia erkidegoko nahiz eskualdeetako** eztabaida-prozesuen bidez, eta prozesu horietan hainbat eragile politiko, sozial eta ekonomikoek parte hartuko dute. Prozesu hori legea indarrean sartu eta sei hilabetera diseinatuko da.

5. Zein udalerrik dute klima- eta energia-plan lokalak onartzeko betebeharra, eta noizko? Zer eduki izan behar dute plan horiek?

Lurralde historikoek eta **5.000 biztanletik gorako udalerriek**, beren eskumenen esparruan, Euskal Autonomia Erkidegoko Energia-jasangarritasunari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legean xedatutakoa barne hartzen duten **klima- eta energia-planak onartu beharko dituzte**. Gainera, klima-aldagaia kontuan hartzea ere onartu beharko dute, klima-aldaketaren ondorioak arintzeko eta klima-aldaketara egokitzeko, Klima-aldaketaren legearen helburuarekin eta edukiarekin bat etorritz.

5.000 biztanletik gorako udalerrietako udalen kasuan, bi urtean behin, planen betetze-mailari buruzko txostena egin eta onartu beharko dute. Plan horietan, berotegi-efektuko gasen emisioen azterketa eta ebaluazioa, elementu ahulen identifikazioa eta karakterizazioa, klima-aldaketa arintzeko eta klima-aldaketara egokitzeko helburuak eta estrategiak jasoko dira, eta baita hirigintza-plangintzan eta udal-ordenantzetan egin daitezkeen aldaketak, eta sentsibilizazio- eta prestakuntza-ekintzak ere.

Euskadiko mugikortasun jasangarriari buruzko 11/2023 legearen arabera, mugikortasun-plan bat egitea derrigorrezkoa denean, plan hori tokiko planekin koordinatuko da.

5.000 biztanletik beherako udalerriek klima- eta energia-planak banaka edo eskualdeka egin ahalko dituzte.

[- Argitalpenak - Euskadiko klima eta energiaren tokiko planak egiteko gida \(ihobe.eus\)](https://ihobe.eus)



6. Nola eragiten dio legeak erakunde lokalek energia berriztagarriak sustatzeari? Nola egin behar da erregai fosilak baztertzeke trantsizioa?

Legearen 27. artikulua dioenez, EAEko administrazio publikoek energia berriztagarriari buruzko proiektuen garapena sustatu eta erraztu behar dute, eta, horrela, **herritarrek** horrelako jardueretan **parte har dezaten sustatu**. Bereziki, **herritarren energia komunitateek, energia berriztagarrien komunitateek edo beste partaidetza-eskema batzuek** antolatzen dituzten proiektuetan sustatuko da tokiko herritarren parte-hartzea.

Horrez gain, gizarte osoak energia-trantsizioan zeregin aktiboa izatea sustatuko da, bai **autokontsumo**aren bidez, bai energia-komunitateen bidez, bai energia berriztagarriko eta/edo biltegitartzeko instalazioetan parte hartuz.

Ondare publikoaren **azalera edo espazioa erabiltzeko eskubidea** eman ahal izango zaie legez eraturako **energia berriztagarrien komunitateei** eta herritarren energia-komunitatei, energia berriztagarriak sortzeko edo energia metatzeko proiektuak garatzeko, edo komunitate horien helburua bilatzen duten beste ekimen batzuk egiteko.

Eguzki-energia berriztagarri fotovoltaikoko eta eolikoko proiektuek, banaka edo batera, **5 MW-tik gorako** potentzia badute kokaleku bakoitzeko – energia-komunitateek sustatzen ez badituzte eta proiektua garatzeko baimena lortzeko prozedura hasi ez badute –, **proiektuaren potentzia osoaren %20** gutxienez eskaini beharko diete instalazioa kokatuta dagoen udalerriko herritarrei, industriari eta dendei, edo bestela, mugako udalei edo eskualdeari.

Halaber, energia berriztagarriak in situ edo eraikinen inguruetan ekoizteko neurriak arautuko dira.

Azkenik, erregelamendu bidez ezarriko da euskal administrazio publikoek **energia fosilak** erabiltzen dituzten eta beren jabetzako eraikinetan dauden ekipamenduen **ordez** jatorri berriztagarriko beste batzuk jartzeko epea eta baldintzak.

7. Nola eragiten die legeak hirigintza-plan eta -garapenei?

Lurraldeko eta **hirietako plangintzak** eta kudeaketak **berotegi efektuko gasen emisioak minimizatu behar ditu, eta kalteberatasun eta arrisku azterketa eta klima-aldaketarako egokitzapena kontuan hartu**.

Plangintza horrek **klima-aldaketarekiko erresilientzia duen hiri-egitura bultzatu behar du**, erabilera ezberdinetarako, klima-aldaketara egokitzeko eredu berriak garatu behar ditu (lurzoruaren iragazkortasuna eta hiriko



berdeguneak sustatuz), bero-boladak saihesteko irizpideak sartu, euri-urak erregulatzeko, berrerabiltzeko eta iragazteko sistemak eraiki, hiriko azpiegitura berdea egin, uholde-arriskua minimizatu eta eraikin eraginkorragoak eta egokigarriagoak sustatu.

Gainera, hirigintzan **azpiegitura berdea eta naturan oinarritutako konponbideak sustatuko dira**, eta lurzoruaren artifizializazioa mugatuko da: lurzoruaren okupazioa arrazionalizatuz, espazio degradatuak berrerabiliz, energiaren eta uraren erabilera jasangarria sustatuz, eta hondakinen, lurzoruen eta biodibertsitatearen kudeaketa sustatuz.

Egokitzapenari dagokionez, hiri-birsorkuntzako ekintzak egokitzapen-neurriak txertatzeko aukera dira, hiri-diseinuan eta diseinu arkitektonikoan printzipio bioklimatikoak ezarriz.



**Herramientas e
instrumentos de Ihobe**
PARA IMPULSAR LA ACCIÓN
CLIMÁTICA EN EUSKADI



8. Ebidentzia zientifikoak etorkizuneko eraginen aurrean lurraldea egokitzeko beharra egiaztatzen du. Zer neurri hartu behar dira eta zein udal-politikatan ezarri behar dira neurri horiek, EAEko udalerriak erresilienteagoak izan daitezen?

Legeak **lurraldearen erresilientzia handitzeko ekintza multzo** bat jasotzen du, bai lurreko ingurunearen erresilientzia, bai kontinenteko, itsasoko eta itsasertzeko urarena. Euskadiko lurraldeak klima-aldaketarekiko duen erresilientzia handitzeko helburu hori betetzeko, ekintza hauek planifikatu dira:

- Azpiegitura kritikoak eta ahulak aurkitzea eta babestea, eta haien arrisku klimatikoa aztertzea.
- Kontinenteko, itsasoko eta itsasertzeko uraren ingurunearen erresilientzia handitzea.
- Baliabide hidrikoen erabilera arduratsua eta lehorteen eta uholdeen kudeaketa sustatzea, arrisku klimatikoak kontuan hartuta.
- Natur ondarea babestea, ekosistemen aniztasuna eta erresilientzia berrmatzea eta konektibitate ekologikoa handitzea.
- Nekazaritza-, basogintza-, abeltzaintza- eta arrantza-sektoreetako eremu ahulenak aurkitzea eta haien erresilientzia sustatzea.



- Klima-aldaketak osasun-sisteman duen eragina hobeto ezagutzea eta prebentzioa garatzea.
- Klima-aldaketak eragindako gertakarien aurrean larrialdi, babes zibil eta segurtasun sistemak egokitzea.

Neurri horietako batzuek eragin berezia dute udal esparruan, besteak beste, larrialdietako eta osasun publikoko udal-planen berrikusketan islatuz.



**Herramientas e
instrumentos de Ihobe**
PARA IMPULSAR LA ACCIÓN
CLIMÁTICA EN EUSKADI

CONSULTA AQUÍ



9. Erosketa publiko berdea funtsezko tresna izango da Administrazioaren ekintza eredugarria agerian uzteko. Zer betebeharrak ezartzen ditu legeak esparru horretan?

Legearen 57. artikulua dioenez, **Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetako kontratazio-organismoek beren kontratuen klausulen eta preskripzio tekniko berezien agerian jaso beharko dute produktu, zerbitzu eta horniduren karbono-aztarna edukitzeko betebeharra.**

Hori derrigorrezkoa izango da erregistroaren antolaketa eta funtzionamendua onesten dituen erregelamenduzko arauan finkatzen den epean. Entitate lizitatuak karbono-aztarna badutela frogatu ahal izango dute, Trantsizio energetikoko eta klima-aldaketako ekimenen euskal erregistroan inskribatuta daudela egiaztatuz.

Ziurtagiri horrek euskal administrazio publikoetako kontratazio-organoen lana erraztuko du. Organo horiek beren kontratuen klausuletan eta agindu tekniko berezietan sartuko dute produktu, zerbitzu eta horniduren karbono-aztarna edukitzeko betebeharra.

Ihobe - Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak tresna erraz bat jarri du euskal enpresen eskura, [karbono-aztarna hori errazago kalkulatzeko](#).



10. Legeak ezartzen al du udal-aurrekontuaren ehuneko bat trantsizio energetikoarekin eta klima-aldaketarekin lotutako ekintzak garatzeko? Zein tresna fiskal jasotzen ditu legeak? Zer da energia berriztagarrien kanona?

Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrei buruzko Lege Proiektuak energia- eta klima-ikuspegia izan beharko du, eta aurrekontu horien %2,5 klimarako ekintzak egiteko erabiliko du.

Gainerako euskal administrazio publikoek beren aurrekontu publikoetan energiaren eta klimaren ikuspegia sartzeari bultzatuko dute, batez ere diseinu fasean. Aurrekontuetan, ezartzen diren jarraibideen arabera, energia-trantsizioan eta klima-aldaketan eragin positiboa duten jarduerak identifikatuko dira, bai ondorioak arintzeko, bai egokitzeko.

Beraz, **udalek energiaren eta klimaren ikuspegia beren aurrekontu publikoetan sartzeari bultzatuko dute, bereziki diseinu fasean**, eta, ezartzen diren jarraibideen arabera, energia-trantsizioan eta klima-aldaketan **eragin positiboa duten jarduerak identifikatuko dituzte**, bai ondorioak arintzeko, bai egokitzeko.

EAEko herri-administrazioek kalteberatasuna areagotzen duten edo berotegi-efektuko gasen emisioak handitzen dituzten jardueren gaineko zergak ezartzea erabakiko dute, eta, bestetik, klima-aldaketara egokitzen, eta emisioak arintzen, murrizten eta xurgatzen laguntzen duten jarduerak fiskalki laguntzea (teknikoki eta ekonomikoki ahal denean).

Trantsizio energetikoaren eta klima-aldaketaren arloko zerga-sistemaren helburuak honako hauek izango dira, besteak beste: energia berriztagarriak sustatzea, sareak deszentralizatzea, energia-autokontsumoa bultzatzea, energetikoki eraginkorrak diren eraikinak eta etxebizitzak eraikitzea, mugikortasun jasangarria sustatzea, deskarbonizaziorako ekonomia zirkularreko ereduak bultzatzea, basoak eta nekazaritza modu jasangarrian kudeatzea, eta hondakinak murriztea eta balorizatzea.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko **lurzoru urbanizaezinean energia berriztagarrien instalazioak ezartzearen kanona zerga zuzena**, aldizkakoa eta estrafiskala, erreal eta konpentsatzailea da; horren bidez, Eusko Jaurlaritzak **lurzoru urbanizaezineko instalazio horiek zergapetzen ditu**.

Kanonak Euskal Autonomia Erkidegoan dauden instalazioei eragiten die, legea indarrean sartu aurretik bazeuden edo legea indarrean jarri ondoren ezartzen badira ere, ustiapenean egon ala ez. **Eusko Jaurlaritzaren kanon hori ingurumena zaindu, berritu eta lehengoratzeko jarduketan garapena finantzatzeko erabiliko da.**



Diru-sarrera horiek energiaren zentzuzko erabilera bultzatzeko eta sustatzeko jarduerak egitera ere bideratuko dira, energia-baliabide berriztagarrien aprobetxamenduaren eraginkortasuna areagotzeko, lurraldea klima-aldaketara egokitzeko, natura-ondarea kontserbatzeko, eta baliabide naturalak gozatzeko eta ikasteko erabiltzeko. Kanonetik salbuetsita daude 5 MW baino gutxiagoko potentzia duten instalazio guztiak eta, nolana ere, autokontsumorako direnak.

Kanon hori 2025eko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean.



Non lortu ditzaket baliabide gehiago eta non jakin dezaket zer laguntza dauden udalentsat eta eskualde-erakundeentzat lege honi lotuta?



<https://www.udalsarea2030.eus/hasiera>

■ 944 23 07 43

[+ Info](#)

ENERGIAREN
EUSKAL ERAKUNDEA
ENTE VASCO
DE LA ENERGÍA

<https://www.eve.eus/Programa-de-ayudas/2020?lang=eu-es>



Herramientas e
instrumentos de Ihobe
PARA IMPULSAR LA ACCIÓN
CLIMÁTICA EN EUSKADI

CONSULTA AQUÍ



[Ingurumen arloak - Klima aldaketa \(ihobe.eus\)](#)



Eusko Jaurlaritzaren harremanetarako erakundeak



■ + 34 944 23 07 43
[+ Info](#)



■ +34 944 035 600
[+ Info](#)

Ezagutu Trantsizio energetikoari eta klima-aldaketari buruzko otsailaren 8ko 1/2024 legearen testua

<https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2024/02/2400901a.pdf>